



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2025eko urriaren 24a

123. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### E SAILA:

##### **Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

—11-25/MOC-00144. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita berma dezan nahi-taezko kontsumoen informazioa modu automatizatu, gaurkotu eta jarraituan ematen zaiola Etxebizitza Hutsen Erregistroari. Mikel Zabaleta Aramendia jaunak aurkeztu du (2. or.).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

—11-25/PES-00368. Galdera, Arraizko saihezbideari buruzkoa. Mikel Zabaleta Aramendia jaunak egin du (4. or.).

—11-25/PES-00369. Galdera, Euskal Udalekuak entitateak antolatutako udalekuetan Nafarroako Gobernuak aire zabaleko gazteentzako jardueri buruz onetsitako araudia betetzeari buruzkoa. Emilio Jiménez Román jaunak egin du (5. or.).

—11-25/PES-00370. Galdera, jakiteko ea Euskal Udalekuak entitateak antolatutako udalekuei buruzko salaketen berri eman ote zioten Eusko Jaurlaritzak edo Ertzaintzak departamentuari. Emilio Jiménez Román jaunak egin du (5. or.).

—11-25/PES-00371. Galdera, Nafarroan tren-azpiegiturak koordinatzeko eta bultzatzeko lantaldea sortzeari buruzkoa. Mikel Zabaleta Aramendia jaunak egin du (6. or.).

—11-25/PES-00372. Galdera, Valle de Odietaren egungo eta baimendutako AzLU-ei buruzkoa. Oihan Mendo Goñi jaunak egin du (7. or.).

—11-25/PES-00373. Galdera, Nafarroa Marka “herri-proiektu” gisa izendatzeari buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (8. or.).

—11-25/PES-00374. Galdera, jakiteko ea arriskuan dagoen Nafarroan instalatzeko interesa erakutsi duen datu-tratamenduko proiekturen bat. Ángel Ansa Echegaray jaunak egin du (9. or.).

—11-25/PES-00375. Galdera, Nafarroako Gobernuaren eta Trantsizio Ekologikorako Ministerioaren arteko bilereari buruzkoa. Ana María Elizalde Urmeneta andreak egin du (9. or.).

—11-25/PES-00376. Galdera, lehendakariaren agenda publikoari buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (10. or.).

---

E saila:  
**INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

## **11-25/MOC-00144. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia- tzen baita berma dezan nahitaezko kontsumoen informazioa modu automatizatu, gaurkotu eta jarraituan ematen zaiola Etxebizitza Hu- tsen Erregistroari**

### *MIKEL ZABALETA ARAMENDIA JAUNAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urriaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Zabaleta Aramendia jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita berma dezan nahitaezko kontsumoen informazioa modu automatizatu, gaurkotu eta jarraituan ematen zaiola Etxebizitza Hutsen Erregistroari.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2025eko urriaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Mikel Zabaleta Aramendia, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Zioen azalpena

Etxebizitza hutsak dira Nafarroako etxebizitza-politika publikoaren erronka nagusietako bat. Biztanleriaren parte handi batek gero eta zailtasun handiagoak ditu etxebizitza duin bat lortzeko, eta hutsik edo ohiko bizitegirako erabili gabe dauden etxebizitzaren kopurua handia denez gero, ez da betetzen bere funtzio soziala.

28/2018 Foru Legea xedatutakoa betez, Nafarroako Gobernuaren Etxebizitza Hutsen 2024ko Erregistroaren txostena igorri zen 2025eko martxoan Nafarroako Parlamentura. Bada, txostenaren arabera, abian jarri zenetik 1.800 etxebizitza sartu dira Etxebizitza Hutsen Erregistroan; kopuru hori, ordea, urrun dago 2018-2028 aldirako Etxebizitza Planak ezarritako helburutik.

Dokumentuak orobat nabarmentzen du ezen, 2024an zehar, Etxebizitza Departamentuak Telekomunikazioetako Zuzendaritza Nagusiarekin batera lan egin zuen, etxebizitza hutsen detekzioa automatizatuko lukeen aplikazio berri bat garatzeko, etxebizitzaren kontsumo elektrikoaren datuak jasoko lituzkeena, horrek ahalbidetuko bailuke etxebizitza hutsen detekzioa Nafarroa osora hedatzea.

Halere, orain arte ez da osatu tresna informatiko horren garapena, zeinaren bidez Etxebizitza Hutsen Erregistroan bildu, prozesatu eta jaso beharko lirakeen ur-, gas- eta elektrizitate-hornidura gabezia duten etxebizitzaren kontsumoari buruzko datuak, edo legearen arabera kontsumo bereziki txikiak dituzten etxebizitzarenak.

Argi dago Etxebizitzaren Nafarroako Behatokiak, sortzea aurreikusita dagoenak, modu erabakigarrian lagundu behar duela datuen kalitatea eta eguneratzea hobetzen. Bereziki, Etxebizitza Hutsen Erregistroarekin koordinatzea ahalbidetu beharko luke, etxebizitzak egiaz erabiltzen ari direla egiaztatzeko funtsezko kontsumo-datuak modu automatizatu eta jarraituan jasotzen direla ahalbidetzeko.

Hutsik egotearen zantzuak dituzten etxebizitzak detektatu ondoren, Nafarroako Gobernuari dagokio etxebizitza hutsak deklaratzeko eta Etxebizitza Hutsen Erregistroan sartzeko prozedura, eta hark du, etxebizitzaren arloan eskumena duen departamentuaren bitartez, prozedura hasteko, izapidetzeko eta

ebazteko eskumena, Nafarroan Etxebizitza izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legearen 42 quinquies artikuluan xedatutakoaren arabera.

Etxebizitza bat Etxebizitza Hutsen Erregistroan inskribatzeak hainbat ondorio juridiko eta administratibo ditu, bai foru-mailan, bai udal-mailan. Alde batetik, Nafarroako Gobernuari ahalbidetzen dio Nafarroan Etxebizitza izateko Eskubideari buruzko Foru Legean aurreikusitako sustapen-neurriak aplikatzen. Bestalde, inskripzio horrek etxebizitza hutsen gaineko zergaren aplikazioa ere gaitzen du. Zerga hori Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatu zuen urriaren 31ko 31/2013 Foru Legearen bidez sartu zen foru-ordenamenduan. Erregulazio horri esker, udalek, tributuen arloan dauzkaten autonomiaren eta eskumenen barruan, ordenantza fiskal propioak onesten ahal dituzte beren udal-mugarteetan etxebizitza hutsen gaineko zerga ezartzeko eta aplikatzeko, kasuko zerga-tasak, hobariak eta kudeaketa-prozedurak ezarrita.

Hala ere, Nafarroako udal gehienek oraindik ere ez dituzte ezagutzen edo erabiltzen zerga- eta administrazio-tresna horiek, batez ere udalerritxikietan, non baliabide teknikorik eta giza baliabiderik ez dagoenez, zaila baita tresna horiek praktikan jartzea. Horregatik, nahiz eta toki-entitateek kezkatuta ikusten duten zaila dela etxebizitza eskuratzea, ezagutza- eta orientazio-falta horrek zergaren eraginkortasuna mugatzen du, eta zaildu egiten du lurraldean ezartzea.

Horregatik, funtsezkoa da - Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak, Nafarroako toki-entitate gehienak biltzen dituen erakundea den aldetik, zeregin aktiboa izatea arlo horretan.

Horregatik guztiagatik, eta etxebizitza-parkearen erabilera soziala sustatzeko eta etxebizitza duin eta ordainerraza izateko eskubidea bermatzeko helburuekin bat etorritik, Nafarroako Parlamentuak erabaki-proposamen hauek egiten ditu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari premiatzen du, Etxebizitzaren Nafarroako Behatokiaren bidez, 2026ko maiatza baino lehen berma dezan Etxebizitza Hutsen Erregistroari behar diren kontsumoei buruzko informazio automatizatua, gaurkotua eta jarraitua ematea, etxebizitza hutsak identifikatzeko, politika publikoak optimizatuz eta modernizatuz eta udalerriekiko koordinazioa erraztuz.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioari proposatzen dio, Nafarroako Gobernuari Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako Departamentuarekin eta haren erakunde instrumentalekin lankidetzan, 2026ko maiatza baino lehen, etxebizitza hutsen gaineko zergari buruzko informazio-zirkular bat prestatu eta zabaldu dezan, bai eta oinarritzko ordenantza edo ordenantza-eredu bat ere, udalei aukera emanen diena ordenantza propio bat garatzeko, juridikoki sendoa den aplikazio bat ziurtatuz eta hura garatzeko udal-autonomia errespetatuz.

Iruñean, 2025eko urriaren 15ean

Foru parlamentaria: Mikel Zabaleta Aramendia

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**11-25/PES-00368. Galdera, Arraizko saihebideari buruzkoa***MIKEL ZABALETA ARAMENDIA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urriaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Mikel Zabaleta Aramendia jaunak egindako galdera, Arraizko saihebideari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko urriaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Mikel Zabaleta Aramendia jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek egiten dizkio Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako Departamentuari, idatziz erantzun ditzan:

Ultzamako Arraitz-Orkingo Kontzejuaren ordezkariak agerraldia egin zuten irailaren 23an Nafarroako Parlamentuko Lurralde Kohesiorako Batzordean, NA-4230 errepedea herritik pasatzeagatik sortzen diren zirkulazio-arazoak azaltzeko; izan ere, egune-

ro 144 kamioi inguruk zirkulatzen baitute bertatik Elordi industrialdera joateko edo handik irteteko. Hori dela-eta, saihebiderea egiteari erabateko lehen-tasuna ematea eskatu zuten.

N-121-A errepedetik Elordi industrialdera doazen ibilgailuak ezinbestean pasatu behar dira Arraiztik (Iruñetik 26,5 kilometrora). Gaur egun hogeit bat enpresa daude industrialde horretan, eta laurogeiko hamarkadan bi besterik ez zeuden.

Agerraldira etorri zirenek azaldu zuten, Herri-lanen Zuzendaritza Nagusiak adierazi die laster jarriko dela jendaurrean trazadura-proiektua, ingurumen- eta desjabetze-ondorioetarako, eta, ondoren, eraikuntza-proiektua idatziko dela.

Hori dela-eta, honako galdera hauek egiten ditut, idatziz erantzun dakien:

Zein izapide egin dira orain arte Arraizko saihebiderearen proiektuari dagokionez eta zertan da espediente gaur egun?

Zer izapide daude egiteke eta zer epe aurreikusten du departamentuak Arraizko saihebiderea eraikitzeko proiektua amaitzeko?

Eraikuntza-proiektua onetsi ondoren, zer aurreikuspen darabil departamentuak proiektua gauzatzeko?

Iruñean, 2025eko urriaren 10ean

Foru parlamentaria: Mikel Zabaleta Aramendia

## **11-25/PES-00369. Galdera, Euskal Udalekuak entitateak antolatutako udalekuetan Nafarroako Gobernuak aire zabaleko gazteentzako jardueri buruz onetsitako araudia betetzeari buruzkoa**

*EMILIO JIMÉNEZ ROMÁN JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urriaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Emilio Jiménez Román jaunak egindako galdera, Euskal Udalekuak entitateak antolatutako udalekuetan Nafarroako Gobernuak aire zabaleko gazteentzako jardueri buruz onetsitako araudia betetzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko urriaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Talde Mistoko eta VOXeko foru parlamentari Emilio Jiménez Román jaunak, Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuko Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako Departamentuari, idatziz erantzun diezaion:

Euskal Udalekuak entitateak antolatutako udalekuetan bete al da, 2020ko urtarrilaren 1etik 2025eko urriaren 9ra bitartean, Nafarroako Gobernuak aire zabaleko gazteentzako jardueri buruz onetsitako araudia?

Iruñean, 2025eko urriaren 10ean

Foru parlamentaria: Emilio Jiménez Román

## **11-25/PES-00370. Galdera, jakiteko ea Euskal Udalekuak entitateak antolatutako udalekuei buruzko salaketen berri eman ote zioten Eusko Jaurlaritzak edo Ertzaintzak departamentuari**

*EMILIO JIMÉNEZ ROMÁN JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urriaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Emilio Jiménez Román jaunak egindako galdera, jakiteko ea Euskal Udalekuak entitateak antolatutako udalekuei buruzko salaketen berri eman ote zioten Eusko Jaurlaritzak edo Ertzaintzak departamentuari.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko urriaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Talde Mistoko eta VOXeko foru parlamentari Emilio Jiménez Román jaunak, Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuko Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako Departamentuari, idatziz erantzun diezaion:

Zure departamentuak edo Nafarroako Foruzaingoak izan al du, publiko egin aurretik, Euskal Udalekuak entitateak antolatutako kanpamentuen inguruko salaketen edo ez-betetzeen berri Eusko Jaurlaritzaren edo Ertzaintzaren aldetik, 2020ko urtarrilaren 1etik 2025eko urriaren 9ra bitartean, Nafarroan?

Iruñean, 2025eko urriaren 10ean

Foru parlamentaria: Emilio Jiménez Román

## 11-25/PES-00371. Galdera, Nafarroan tren-azpiegiturak koordinatzeko eta bultzatzeko lantaldea sortzeari buruzkoa

MIKEL ZABALETA ARAMENDIA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urriaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Zabaleta Aramendia jaunak egindako galdera, Nafarroan tren-azpiegiturak koordinatzeko eta bultzatzeko lantaldea sortzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko urriaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Mikel Zabaleta Aramendia jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek egiten dizkio Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako Departamentuari, idatziz erantzun ditzan:

Aurtengo martxoan, AHTren aldeko plataforma bat sortu zen Nafarroan, batez ere Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioak sustatua eta dozenaka eragilek babestua, batez ere enpresa-eragileek.

Nafarroako Gobernuak oraintsu iragarri du lan batzorde bat sortuko dela plataforma horrekin lankidetzan, Nafarroako trenbide-azpiegiturak koordinatu eta bultzatzeko, inplikaturako departamentuen arteko eta Estatuko Administrazio Orokorrarekiko lankidetzaren instituzional eta tekniko indartze aldera.

Zabaldutako informazioaren arabera, lantaldeak zuzendaritza batzorde bat eta batzorde bete-arazle bat izanen ditu, baita talde tekniko espezializatua ere, eta Foru Komunitateari eragiten dioten tren-jarduketaren nagusien jarraipena, plangintza eta garapena egiteko tresna izan nahi du.

Ekimen horren garrantzia dela-eta, komeni da zehatzago ezagutzea haren osaera, barne-funtzionamendua, helburu zehatzak eta lan-metodoa, bai eta bere agendan aurreikusitako gaiak eta

beste administrazio batzuekiko koordinazio-mekanismoak ere.

Alderdi horiei buruzko informazio zehatza izateko, honako galdera hauek egiten dira, Lurralde Kohesiorako Departamentuak idatziz erantzun ditzan.

1. Zer eskumen, eginkizun eta atribuzio eman zaizkio berariaz, Nafarroan tren-azpiegiturak koordinatu eta bultzatzeko lan batzordeari?

2. Zein da batzorderako ezarri den barne-funtzionamenduko erregelamendua edo sistema?

3. Zein izanen da batzordearen, zuzendaritza batzordearen, batzorde bete-arazlearen eta eragiten diren batzorde teknikoaren osaera zehatza?

4. Zenbatean behin bilduko dira batzordea, zuzendaritza batzordea eta batzorde bete-arazlea?

5. Nafarroako Gobernuak zer helburu espezifiko lortu nahi ditu batzorde hau sortzean?

6. Zehaztu al da jada ibilbide-orririk edo jarduteko estrategiarik, komunikabideetan adierazi den bezala? Hala baldin bada, zeintzuk dira lerro eta epe nagusiak?

7. Zer baliabide tekniko, giza baliabide eta finantza-baliabide izanen ditu batzordeak bere eginkizunak betetzeko?

8. Zer gai jorratu ziren batzordearen lehen bileran eta zer balorazio egiten du Nafarroako Gobernuak haren lanari eta emaitzei buruz?

9. Zeintzuk izanen dira batzordearen hurrengo bileretan landuko diren gai eta proiektu zehatzak?

10. Nola antolatuko da batzordearen eta Nafarroako Gobernuko organo bete-arazle edo erabakitzaileen arteko harremana?

11. Herritarrei kontuak emateko zer mekanismo aurreikusten dira batzordearen lanari dagokionez?

12. Batzordearen, zuzendaritza batzordearen eta batzorde bete-arazlearen bileren aktak publikoak eta eskuragarriak izatea aurreikusten da?

13. Interes-gatazkak prebenitzeko zer neurri ezarriko dira, batez ere enpresa-elkarteek, enpresa pribatuek, logistika- edo tren-operadoreek parte hartzen badute?

14. Aurreikusita al dauka Nafarroako Gobernuak lantalde horretan tren-arloari lotutako beste plataforma sozial edo sindikal batzuk sartzea?

15. Aurreikusita al dago ordezkariak duten beste sektore batzuek –hala nola toki-entitateek, erakunde sozialek edo sindikalek– solaskide tekniko gisa parte hartzea lantaldeetan?

16. Aurreikusten al da herritarrek, elkarteek edo udalek saio jakin batzuetan entzule gisa parte hartu edo bertaratu ahal izatea, edo batzordeari proposamenak aurkeztu ahal izatea?

17. Zer lankidetzak publiko-pribatu mota ezartzea aurreikusten da Nafarroan tren-azpiegiturekin lotuta dauden plataforma sozialekin?

18. Nafarroako Gobernuak babesten al du, Iruña-Gasteiz tarterako planteatzen ari den bezala, AHTaren trazadurari buruzko informazio-azterlana egiteaz gain, azterlan alternatibo bat egitea, egungo sarea bikoiztea ahalbidetuko lukeena eta ingurumen-inpaktu askoz txikiagoa eta kostu ekonomiko askoz txikiagoa ekarriko lukeena, hainbat plataforma sozialek eskatu duten bezala?

Iruñean, 2025eko urriaren 13an

Foru parlamentaria: Mikel Zabaleta Aramendia

---

## 11-25/PES-00372. Galdera, Valle de Odieta egungo eta baimendutako AzLU-ei buruzkoa

*OIHAN MENDO GOÑI JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urriaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Oihan Mendo Goñi jaunak egindako galdera, Valle de Odieta egungo eta baimendutako AzLU-ei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko urriaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Oihan Mendo Goñik, Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek egiten dizkio Nafarroako Gobernu Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuari, idatziz erantzun ditzan:

Aierdi Fernández de Barrena kontseilariak urriaren 10eko Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Batzordean egindako agerraldian, Caparrosoko Valle de Odieta abeltzegin AzLUetan desbideratze bat detektatu zela aitortu zuen.

Zenbat AzLU daude baimenduta gaur egun Caparrosoko Valle de Odieta abeltzegin?

Zenbat AzLU detektatu dira gaur egun Caparrosoko Valle de Odieta abeltzegin?

AzLU kopuruak indarrean dagoen baimena ez betetzea badakar, departamentuak zer neurri hartuko du?

Iruñean, 2025eko urriaren 13an

Foru parlamentaria: Oihan Mendo Goñi

## 11-25/PES-00373. Galdera, Nafarroa Marka “herri-proiektu” gisa izendatzeari buruzkoa

JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urriaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak egindako galdera, Nafarroa Marka “herri-proiektu” gisa izendatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko urriaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioaren eledun den Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

Joan den urriaren 8an, "Nafarroa Marka" aurkeztu zen Altsasun.

Aurkezpenean, lehenengo lehendakariorde eta Lehendakariitzako eta Berdintasuneko kontseilari Félix Tabernak parte hartu zuen, eta honako adierazi zuen:

"Nafarroa Marka herri-proiektu bat da. Herri-proiektu hori palanka bat izatea nahi dugu, Nafarroa oparagoa, komunitarioagoa eta gure artean bizikidetzatza handiagokoa izan dadin".

Hori dela-eta, honako hau jakin nahi dugu:

Zer esan nahi zuen Félix Taberna jaunak Nafarroa Marka "herri-proiektu" izendatzean?

Iruñean, 2025eko urriaren 13an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

## 11-25/PES-00374. Galdera, jakiteko ea arriskuan dagoen Nafarroan instalatzeko interesa erakutsi duen datu-tratamenduko proiekturen bat

ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urriaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak egindako galdera, jakiteko ea arriskuan dagoen Nafarroan instalatzeko interesa erakutsi duen datu-tratamenduko proiekturen bat.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko urriaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Ángel Ansa Echegaray jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babe-

sean, honako galdera hauek aurkezten ditu, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun ditzan:

Ikusita Irujo kontseilariak zer iragarri zuen joan den urriaren 9an Trantsizio Ekologikorako eta Erroka Demografikorako Ministerioak aurkeztu zuen plangintza elektrikoaren proposamena dela eta, zeinean Nafarroari ez baitzaio GW bakar bat ere esleitzen datu-tratamenduko zentroetarako:

1.- Ba al dago Nafarroan ezartzeko interesa erakutsi duen eta orain arriskuan dagoen datu-tratamenduko zentzoren baterako proiekturik?

2.- Baldin badago, zer proiektu da hori?

3.- Proiekturen batek behin betikoz uko egin al dio Nafarroan kokatzeari? Hala baldin bada, zer proiektu da hori?

4.- Zer zuzemen egiten ari da Nafarroako Gobernua datu-tratamenduko zentroetarako GW banaketa nazional hori behin betikoa izan ez dadin eta Nafarroari kalte hain nabarmena egin ez diezaion?

Iruñean, 2025eko urriaren 14an

Foru parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

## 11-25/PES-00375. Galdera, Nafarroako Gobernuaren eta Trantsizio Ekologikorako Ministerioaren arteko bilereari buruzkoa

ANA MARÍA ELIZALDE URMENETA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urriaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana María Elizalde Urmeneta andreak egindako galdera, Nafarroako Gobernuaren eta Trantsizio Ekologikorako Ministerioaren arteko bilereari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko urriaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikita dagoen Ana Elizalde Urmeneta andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

2023ko abenduan, 2030erako garraio eta energia elektrikoaren sarea garatzeko proposamenak egiteko prozedura hasi zen, eta proposa-

menok 2024ko urtarrilaren 1etik martxoaren 31ra bitarte bidaltzeko epea ireki zen.

Prozedura hasi zenetik:

Zenbat bilera egin ditu Nafarroako Gobernuak Trantsizio Ekologikorako Ministerioarekin?

Zer gai jorratu dira bilera horietan?

Nork parte hartu du bilera horietan?

Iruñean, 2025eko urriaren 15ean

Foru parlamentaria: Ana Elizalde Urmeneta

---

**11-25/PES-00376. Galdera, lehendakariaren agenda publikoari buruzkoa**

*JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urriaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak egindako galdera, lehendakariaren agenda publikoari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko urriaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide eta Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioaren eledun den Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

Lehendakariaren agenda publikoa ez da eguneroko gaurkotzen, ekitaldiak-eta bizpahiru egunen buruan sartzen baitira agendan. Zergatik?

Iruñean, 2025eko urriaren 15ean

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez



